



PRESTAKUNTZA ARLOA:	INGURUMENA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

# LOS MUNICIPIOS Y LA GESTIÓN DE RESIDUOS EN LA LEY 7/2022, DE 8 DE ABRIL DE RESIDUOS Y SUELOS CONTAMINADOS PARA UNA ECONOMÍA CIRCULAR

KODEA

50/2023/2/10/1

## INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Otsailak 27 eta 28	<b>TOKIA/IKASGELA</b>	Bilbo. IVAPeko egoitza (Errekalde zumarkalea, 18)
<b>IRAUPENA</b>	10 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	9:00-14:00
<b>MATRIKULA EPEA</b>	Otsailak 3	<b>BAJAK (ez darama gasturik)</b>	Otsailak 26
<b>HARTZAILEAK</b>	Beren eginkizunak ingurumenaren arloan betetzen dituzten toki-erakundeetako langile publikoak.	<b>HAUTATZE IRIZPIDEAK</b>	Toki administrazioetako teknikariak
<b>IKASLE KOPURUA</b>	20 pertsona	<b>IRAKASLEA</b>	Angel Ruiz de Apodaca. Nafarroako unibertsitatea

## ZER LORTU NAHI DA

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legearen alderdi garrantzitsuenak ezagutzea, baita toki-erakundeentzat dituzten betebeharrak eta ondorio juridiko garrantzitsuak ere.</li> <li>Hondakinen arloko tresnen eta planen ikuspegi integrala eskuratzea.</li> </ul>
<b>IKASLEEN HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko Legea zehatz-mehatz ezagutzea, haren edukia ulertzea, haren aplikazioaren arazo nagusiak aztertzea, eta, batez ere, toki-erakundeentzat bereziki ezartzen dituen premiazko betebeharrak eta hori betetzeko hartu behar diren bitartekoak aztertzea.</li> <li>Ekonomia zirkularrak dakarren paradigma-aldaketa barneratzea.</li> </ul>
<b>GAITASUNAK</b>	<p>Prestakuntza ekintza amaitzean ikaslea gai izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko Legea, haren edukia, inplikazioak eta helburuak zehatz-mehatz ezagutzea, eta legea aplikatetik etor daitezkeen arazo nagusiak aztertzea.</li> <li>Hondakinak sortzeko eta kudeatzeko jardueretan administrazioak esku hartzeko teknikak identifikatzea eta ezagutzea.</li> <li>Lege hau aplikatzeak toki-erakundeei ekarriko dizkien ondorioak zehatz-mehatz ezagutzea.</li> </ul>

## PROGRAMA ETA EBALUAKETA

<b>METODOLOGIA</b>	<p>Eskolak azalpenezkoak izango dira, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Lege berrian eta aurkezpenetan, doktrina-artikuluetan eta jurisprudentzian oinarrituta. Horietan, halaber, ikasleen parte-hartze aktiboa sustatuko da, ikasleek edo irakasleak gaiak planteatzea sustatuz.</p> <p>LKH Legea 7/2022.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Sarrera orokorra: hondakinen arazoa, ekonomia linealetik ekonomia zirkularrera.</li> <li>Eremua, objektua eta helburua. Hondakinaren, azpiproduktuaren eta hondakin izaeraren amaieraren kontzeptuak.</li> <li>Printzipioak.</li> <li>Hondakinei buruzko 7/2022 Legearen eskumen- eta antolamendu-alderdiak.</li> <li>Hondakinen politikaren tresnak</li> </ul>
--------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA PLANA 2023



PRESTAKUNTZA ARLOA:	INGURUMENA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

## LOS MUNICIPIOS Y LA GESTIÓN DE RESIDUOS EN LA LEY 7/2022, DE 8 DE ABRIL DE RESIDUOS Y SUELOS CONTAMINADOS PARA UNA ECONOMÍA CIRCULAR

- Prebentzio-tresnak.
- Betebehar nagusiak herri-administrazioentzat, bereziki toki-erakundeentzat (gaikako bilketa).
- Hondakinak sortzea, edukitzea eta kudeatzea (kudeatzeko moduak eta horien araubidea).
- Hondakin espezifikoak kudeatzea: bio hondakinak, olio erabiliak eta eraikuntzako hondakinak.
- Hondakinak sortzeko eta kudeatzeko jarduerak baimentzeko eta jakinarazteko araubidea.
- Produktuaren ekoizlearen erantzukizun zabaldua eta hedadura.
- Erabilera bakarreko plastiko eta plastikokoekiko tresnak eta betebeharrak.
- Hondakinen Lege berriaren tresnak eta informazio-betebeharrak.
- LKHren zerga berriak: isurketaren eta errausketaren gaineko zerga eta plastikozko ontzien gaineko zerga.
- Erantzukizunaren, zaintzaren, ikuskapenaren, kontrolaren eta zehapenaren araubidea

### EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Galdera labur zehatzak aztertzeko proba bat, LKHren edukiari eta prestakuntza-saioetan azaldu eta errepikatu diren gaiei buruzko oinarritzko gaiei buruzkoa, eta, ahal den neurrian, ikastaroaren xedearekin lotutako testu, ebazpen edo eparen baten iruzkin laburra. Ikasgelako parte-hartze aktiboa ere baloratuko da, irakasleak egiten dituen galderei erantzunez edo planteatuz. Oro har, puntuazioa 0tik 10era bitartekoa izango da; azterketa % 80koa izango da, eta parte-hartzea, berriz, % 20koa. Azterketari 8 puntu dagozkio, eta gutxienez 5 lortu behar dira gainditzeko. Parte-hartzeari 2 puntu dagozkio. Azken kalifikazioa GAI/EZ GAI izango da

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Irakasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazioa inkesta

Bete beharreko baldintzak:

### ZIURTAGIRIA DIGITALA: APROBETXAMENDUA

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

Ziurtapen elektronikoaren mezua jaso bezain pronto **ziurtagiri digitala** eskuragarri izango duzu. "IVAPekiko Izapideak" atalean sartu eta "Ziurtatzeak" botoia sakatu.

### PREZIOA

119,70€ (AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena.).